

Txiletik MUra, Lehen Hezkuntza aztertzeko

2011/05/11

Euskal Herrira etorri zirenetik, Gasteizen hartu dute ostatu, baina eguna Eskoriatzan igarotzen dute, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Hiru emakume eta gizakume bat, Txileko bi unibertsitatetik etorriak. **Matilde Niño** eta **Sylvia Zamorano** Arturo Prat Unibertsitatetik iritsi dira, Iquiquen. **Ana Maria Mendez** eta **Francis Flores Castillo**, berriz, Playa Anchako Unibertsitatetik, Valparaison.

Mariam Bilbatua doktorearen gidaritzapean, lau irakasle txiletarrek hainbat bilera egin dituzte moduluetan dabilen jendearekin, beraien ustez, Mondragon Unibertsitatea berritzailea baita alor horretan eta parekotasunak baititu euren sistemarekin. Halaber, elkarrizketak egiten ari dira hemengo irakasle zein ikasleekin, eta hainbat grabazio egin dituzte, Txilera eramateko.

Maiatzaren 10ean bilera egin zuten Arrasaten **Iosu Zabala** MUko errektorearekin eta **Edurne Galindez** on line programako arduradunarekin. Maiatzaren 19an itzuliko dira Txilera.

